



PREGÓN

## Patxi Zubizarreta

Patxi Zubizarretak (1964) Ordizia du jaioterri eta Gasteiz sorleku. Bere lanetan erroak nabarmentzen dira, hala nola *Atxiki sekretua* obran eta *Urrezko giltza* disko-liburuan, edota *1948ko uda* nobelan. Baina hegoak ere nabariak dira, batez ere migrazioak eta mundu arabiarra guregana hurbiltzeko, esate baterako *Usoa* eta *Korri, Kuru, korri!* ipuinetan, edota *Eztia* eta *ozpina* nobelan. Erroak eta hegoak berak egindako Exupèryren *Printze Txikia* edo Mahfuzen *Mirarien kalezuloa* itzulpenetan ere ageri dira. Lan asko itzuli eta saritu dizkiote —*Zerria* & *Porcus* lanarekin Euskadi Saria eta Espainiako Sari Nazionala eskuratu zituen— eta, generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.



ILUSTRACIÓN

## Laia Giménez Buenaventura

(1995eko urriaren 23 - Vilobí d'Onyar, Girona) ilustrazio eta argazkilaritza ikasketak egin zituen Gironako Olot Goi Mailako Diseinu hasi zen lanean, haurren eta gazteen ilustrazioan espezializatuz. Udalentzako eta norbanakoentzako proiektu txikiei heldu zien, bere nortasun bisuala eta lehenetsi dituen proiektu pertsonalak garatu bitartean. Urte horretan bertan, «Reactivem-nos Santa Eugènia» ekimenean kolaboratu zuen. 2033an *El rapte de Proserpina* eta *Llegendes menudes* ipuina autoargitaratu zuen Marta Masórekin batera, eta «100 cims il·lustrats» proiektuari ekin zion; mendiak eta natura uztartzen dituen dibulgazio proiektua da, zeinak folklore katalana berreskuratzea duen helburu, mendia eta naturarekin lotutako moda eta bestelako proiektuen diseinuaren bitartez.

2024an argitaletxe batzuetan lan egiten du eta 2025 hasieran argitaratuko den liburu bat prestatzen ari da.

Bere obra Kataluniako folklorearen ikerketa eta berrinterpretaziotik sortzen da eta, neurri handi batean, emakumeek herri-kulturan, etxeko zein komunitateko zaintza-sarean utzi duten aztarna izugarria erakustea du helburu.



# ESKOLA LIBURUTEGIAREN EGUNA

2024ko URRIAREN 24<sup>º</sup>

ANTOLATU:



KOLABORATU DUTE:





## Beste biblioteka bat!

Urte luzez pentsatu izan dut haurtzaroan ez nuela bibliotekarik izan, baina agian oker nago, agian liburutegi askoren erdian bizi izan nintzen: mendian aurkitutako fosilek aspaldiko garaiei buruz hitz egiten zidaten, ni nenbilen tokian igerian ibilitako arrainei buruz; harri bitxiak, ustezko meteorito zatiek, galaxia urrunetara eramaten ninduten; kobazuloetako eskeletoek bertan hibernatutako hartzak ekartzen zizkidaten gogora; zuhaitzen enborretako eraztunak lehortearen eta lurrikaren berri ematen zidaten. Baina batez ere aitona-amonen ipuinak, istorioak eta kantutak maite nituen; haien emozio, poztasun eta penen bitartez benetako jakituria eskaintzen zidaten. Beharbada horrexegatik esaten da adineko pertsona bat hiltzen denean, biblioteka bat ixten dela.

Urte luzez pentsatu izan dut nire jaioterrian (Ordizia, Gipuzkoa) ez nuela bibliotekarik izan, baina seguruenik oker nago: haurtzaroan fosilak eduki nituen inguruan, ustezko meteorito zatiak, eskeletoak, zuhaitz eraztunak eta, batez ere, arbasoen ahotsak eta oihartzunak, gizateriaren eta naturaren benetako entziklopedia bat. Liburuak geroago etorriko ziren, eta bakoitza munduaren leiho bat zen, munduaren laburpen ñimiño bat.

Liburuak poltsikoan daramagun lorategia denez, bibliotekak nire oasi partikularrak bilakatu ziren, haietan topatu nuen nire habitat propioa. Bai, kontziente naiz

beti oso toki atseginak iruditu zaizkidala; oraindik ere, kasik egunero joaten naiz Gasteizko Ignacio Aldecoa kultura etxera eta eskoletako saioak, gehienetan, bertako biblioteketan egiten ditut. Hala ere, batzuetan kezka eta tristura eragin izan didate: adibidez, jakin nuen Oronoz-Mugairiko eskola erre egin zela! Nafarroa iparraldeko eskola txikitik, idazleoi liburuak eskatu zikiguten, eta pozarren ale batzuk bidali nituen orduan, baina, esker onarekin batera, ustekabea, haurren eskari bitxi bat jaso nuen: «Idatziko diguzu ipuin bat?».

Orduantxe izan nuen Baztango ikastetxearen ohi-tura berezi-bereziaren berri: urtero, ipuin bat sortu, marraztu —haurrentzat, idaztea marraztearen sinonimoa da—, eta txukun baino txukunago koadernatzen zuten, oso paper lodiarekin, oso edizio dotore eta koloretsuan. Aluma guztiz desberdina izaten zen, guztiz bakana, eta hurrek gero harrotasunez eramaten zuten etxera: aitona-amonei, aita-amei, neba-arrebei erakusteko eta kontatzeko. Liburuak etxez etxe ibili ostean, eskolako bibliotekan geratzen zen, ederragotu egiten zuen biltokia, betiere bibliotekari bizkorren eskutik, izan ere liburutegia toki bat baino gehiago espiritu bat da. Hala bada, bereziki gogoan dut ikasturte hura, hain zuzen ere nik idatzitako testutxoak —*Marabara*, *maraberi*— liburu bihurtu zutelako, baina orduko hartan tirada handiagoa gertatu zen... eta bi ale inprimatu zituzten:

bata, noski, eskolan geratu zen, baina bestea... bestea nik daukat eta altxor paregabea iruditzen zait esku artean hartzen dudana aldiro.

Liburu bakoitzaren barrenean biblioteka bat gordetzen da, baina gaur egungo eskolak ere munduaren laburpen modukoak dira, haietan fosilak topa ditzakegu, eta ustezko meteoritoak, eta eskeletoak, eta basoak, eta gero eta ahots, gero eta oihartzun gehiago. Ez dago urrunera joan beharrik: nire jaioterriko Urdaneta eskolan bertan, hogeitaz jatorri baino gehiago daude ikasleen familien artean eta, euskara eta gaztelaniarekin batera, hogeita hamar hizkuntza baino gehiago entzun daitezke: arabiera, txinera, edo, errumaniera, urdu... Handik ere ipuin bat idazteko eskatu zidaten eta *Munduketariak* lana sortu zen, mundukerien aurkako aldarri gisako bat.

Esan bezala, pozaren pozez joaten naiz eskola biblioteketara, eta irrikaz entzuten ditut Aitor, Aresha, Harmony, Luzia, Ping-Ping edo Sekou neska-mutikoen historiak eta ametsak. Zorionez, gaur egun haiek ez daude biblioteka faltan eta, gainera, neska berri bat, mutiko berri bat joaten zaien bakoitzean, beste biblioteka bat zabaltzen zaie, beste biblioteka bat sortzen dute!

Patxi Zubizarreta